

## **Dionisio de Ofiatibia eta Lerri Trask-en eskutitzak**

THE • UNIVERSITY OF LIVERPOOL

Dionisio de Ofiatibia jauna

Iparrraguirre, 28, 1.º

Urretxu

Gipuzkoa

Jauna:

Zure eskutitza hartu dut. Zoritxarrez, ez nago zurekiri ados. Nere gutun honetan, zergatiak esplikatzen saiatuko naiz.

Zure eskutitzean, Euskaltzaindiaren hizkuntza-plangintza zentsuratzen duzu; Euskara Batuaren zenbait aspektu zentsuratzen dituzu, batez ere ortografia; eta bereziki, ortografia honen H-ak erabiltzea zentsuratzen duzu. Kritika hauk alderantziz kontsideratuko ditut.

Lehenbizi, H famatua. Zure eskutitzean, euskalari ezagun batzu aipatzen dituzu; haiek zera sinisten dute: H-ek «no tienen justificación lingüística... [o]... etimológica» (Labayen);

H-a «inutil» dela (Labayen); H-ak «hace mas difficil la ortografia vasca» (Lopez Mendizabal); eta «no hay razon alguna para introducir esa letra en el euskera unificado» (Zatarain).

Ez nago ados. Lehenik, euskararen literari tradizio zaharren eta estimatuenean, H hori zabalki erabiltzen da (eta Euskara Batuan baino askoz gehiago): Etxepare, Lizarraga, Axular, eta Sara-ko Eskolaren idazlanetan. Horregatik, H-a *sartzea* ez da galdekizuna, *jarraitzea* baizik.

Bigarrenik, iparraldeko euskaldun guztiek (Lapurdiko itsasaldekoko batzuk salbu) H horik *ahozkatu* egiten dituzte gaur beren eguneroko hizketan. Euskaldun hauen aldetik, *hau* eta *ahal* bezalako hitzetako H idatziak ezabatzea ezina da, *jan* eta *ijito* bezalako hitzetako J idatziak ezabatzea bezalaxe, gipuzkoar baten aldetik. Hau kontuan hartzen ez duen hizkuntza idatzi bat ez litzateke guztiz batua izango.

Hirugarrenik, ahozkatzen ez den H Idatzi bat erabiltzea zeharo ezaguna zaie gaztelaniaz edo frantsesez hezi diren euskaldun guztiei; ez du zailtasunik egiten hizkuntza horien erabiltzaileentzako, eta ez dut uste, problemarik egongo dela euskaldunentzako.

Laugarrenik, H idatzia oso utila da, zenbait hitz bereizteko; adibidez, *ari/hari/ahari*; *ala/hala/ahala*; *nai/nahiz*; etab.; argitasunerako laguntza ematen du hizkuntza idatzian.

Horregatik, nere ustez, H hori erabiltzeak «justificacion lingüística» *asko* du; euskararen eredu zaharrenekin ados dago; ez da inolaz alferra; ez du ortografia zailtzen; eta arrazoi bikainak daude, H-a onartzeko ortografia batu batetan.

Ez dut ulertzen zergatik aipatzen duzun Iratzeder jauna, H-ak nahi dituen, baina Euskaltzaindiak baino gutxiago. Are gutxiago ulertzen dut «La letra H no tiene justificacion en lengua no romance» aipua, Caro Baroja jaunari emana. Segurki hau errore bat izan behar da; errore bat ez bada, ez du erantzunik merezi.

Orbkorkiago, zera esaten duzu, Euskaltzaindiak «todas las normas tradicionales de la lengua vasca» oposatzen dituela (Labayen). Berriz, ez nago ados. Batuko ortografiako karakteris-

tika guztiak euskal literatura onenik askotan ematen dira: H-a, X eta TX-ak, P eta B aurreko, N, N eta LL barikeko IN eta IL, eta TT, DD, eta RR letrak. Beste konbentzio batzu erabili izan dira, noski, baina Batuko ortografiaren seinale guztiak hizkuntza idatzi tradizionalen ematen dira.

Zure erreparu espezifikuagoak, H-a salbu, ez zaizkit oso argiak, nabiz eta zuk hau esaten duzun: «Euskaltzaindia se ensana en destruir la obra linguistica de Sabino de Arana, del mas genial restaurador que jamas ha conocido nuestro idioma» (Labayen). Beno. Euskal Herriak asko zor dio Sabin Arana-ri, baina Arana ez zen euskaldun, eztaere linguista, eta haren obra linguistikoa ez zen hain perfektoa. Adibidez, *euzkeldun*, *lagi*, *izparringi*, *saspi*, *berramar*, *gotzcdn*, *abesti* bezalako hitzak ez dira inoiz erabili izan herri euskaraz; ez ziren ematen Arana-aurreko literaturan; haien egitura ez dago eredu tradizionalekin ados; ez dute ezein justifikazio linguistikorik. Euskara Batuko formak *askoz* hobeak dira.

Zuk zeuk zera esaten duzu: «[E]I objetivo maximo... [es una ortografia]... con grafemas que corresponden a concretas fbiemas y sin la existencia de superfluos grafemas sin sonido fonetico alguno», eta errusiera eta turkera aipatzen dituzu liolako ortografiak dituen hizkuntzatat.

Beno. Holako ortografia bati «fonemikoa» esaten diogu. Baina ortografia fonemikoa ez da moeta bakarra, eta batzutan ez da moeta egokiena. Kotsidera ezazu errusierako ortografia, dirudienez onesten baituzu. Ortografia hau ez da inola fonemikoa, *morfofonemikoa* baizik. Hau da, morfema bakoitza (sustrai bakoitza, hizki bakoitza) forma konstante bakar batez idazten da, ahozketan kontuan hartu barik. Holako ortografia bat askoz egokiagoa zaio errusieraren egiturari, ortografia fonemiko bat baino. Erregela berdina erabiltzen dugu ingelesaz, nahiz eta irregularitasun asko ditugun. Beraz, esate baterako, *photograph* (fotografo), *photography* (fotografia), *photographic* (fotografiko) idazten ditugu, nahiz eta ortografia fonemiko batek (soinu-bat-letra-bat), britainiar ahozketari begiraturik, holako zerbait eman behar izango luke: *feufgraaf*, *f'tdgr'fi*, *feut'grdfik*. Holako ortografia batekin, oso zailea izango litzateke sustrai berbera hitz desberdinetan ezagutzeko.

Gainera, ortografia fonemiko bat egiteko, ahozketaren erakusten baitu, lehenbizi galdera hau erantzun egin behar dugu: *Noren ahozketaren?* Hiru hitz berberak amerikar ahozketaren emateko erara idazten baditugu, erresultatea hau da: *fout'graf, fidagr'fi, fofgrdfik*. Ingeles ortografia tradizionala oso egokia da, britainiar eta amerikar mintzatzaileentzat; ezein ortografia fonemikoa baino hobea da. Berdina gertatzen da errusiera aldetik. Eta nik uste dut gauza berdina egia dela Batuko ortografia aldetik, esentzialki morfofonemikoa baita: *gizon, gizona; mutil, mutila* (eta ez *mutilla*); *oin, oina* (eta ez *ofta*); *min, rain-bizi* (eta ez *mimbizi*). Sustraien identitatea zeharo argia da, forma konstante idatzi bat dutelako, erraza ezagutzeko, eta iparraldeko eta hegoeldako ahozketaren biak aurkeztuz. Nere ustez, *il* eta *in* erabiltzea, *ll* eta *fz*-en ordez, eta *h* erabiltzea, prezio txikia da ordaintzeko, egiatzko ortografia batua hartzeko euskaldun *guztientzako*.

Beste puntu txiki bat: Turkeraren ortografiak ahozkatzen ez den letra bat erabiltzen du — *g*, delako «*g* biguna». Esaterako, turkoek *agac* 'zuhaitz', *dag* 'mendi', *aga* 'nagusi', *sogan* 'tipula', *degil* 'ez' idazten dituzte, nahiz eta *aac, daa, aa, soon, deil* ahozkatzen dituzte. Ahozkatzen ez bada ere, letra hau utila da turkeraz.

Zure eskutitzean, beste irazkin batzuek egiten dituzte Batuko ortografiari buruz: «formas absurdas» erabiltzen dituela (Labayen), «caos lingüística» emango digula. Hauk ez dira argumentuak, eritziak baizik. Ni ez nago ados.

Euskaltzaindiaren programari buruzko kritika orokorrago batzuek egiten dituzte. Zera esaten duzue, batasuna «gradualmente» eta «por etapas» aurreratu behar dela (Irigaray). Denbora gehiago izango bagenu, zurekin ados izango nintzateke, baina ez *dugu* denborarik. Nere ustez, gizaldi *bat bakarrik* dugu hizkuntza batua egiteko; bestela, beranduegi izango da. Euskarak ezin du luzaki bizirik iraun, sukaldeko eta baserriko hizkuntzatzat; hizkuntza batua berehala eraiki behar dugu helburu desberdin askotarako, batez ere gai eta maila guztientzako irakaskintzarako. Hau egingo ez bada, erdarazko irakaskuntza ta erdarazko telebistaren eraginak euskara deuseztatu egingo du. Begira ezazu UZEI eta Elhuyar-en Ian bikaina; holako lana ezina izango litzateke, euskara batua barik.

Beste zerbait esaten duzu, Euskaltzaindiaren erabakiak arbitrarioak direla. Bai, ba dira. Hizkuntza-plangintza egitean, erabaki arbitrario asko egon behar dira beti. Galdekizuna ez da, erabakiak arbitrarioak diren ala ez, baizik eta *onak* diren ala ez. Nere ustez, Euskaltzaindiaren erabakirik gehienak onak izan dira. Ez denak, noski — ezein pertsonak eta bereziki ezein komitek ez du Ian perfektorik egingo. Ingelesaz esaten dugunez, «Gamelua, komite batek diseinatutako zaldia da». Baina, nere ustez, Euskaltzaindiaren zaldia ez da gamelua.

Zuk zera galdegiten duzu: «¿Que diran y que comentaran cuando se enteren los lingüistas del mundo?» Nik neuk hau diot: Euskaltzaindia harroa izan liteke bere lanarengatik. Euskara Batuaren ortografia, ikusi ditudan onenik bat da.

Beste puntu bat. Zu kexatu egiten zara, Euskara Batua askotan zailea delako ulertzeko, eta zeren «no respeta las hablas dialectales en uso». Joan zen batzarre artean, puntu berdina egin zidan euskaldun batek Bastidan; harek zera esan zidan, *Zeruko Argia* zailea zela ulertzeko. Aita Lafitte-k zergatia esplikatu zigun: *Zeruko Argia-ren* idazleek ez dute beti euskaraz egiten.

Hau egiazko problema bat da, baina soluzioa ez da Euskara Batua abandonatzea. Horren ordez, kontrakoa egin behar dugu. Euskaraz eginahalik egiten saiatu behar dugu arlo guztietan. Baina hau egin dezakegu, hizkuntza batua badugu *bakarrik*. Era rzarharrean jarraitzen bagara, bakoitzak bere euskalkian idazten, nahiago dituen hitzak erabiltzen, erresultatea benetan izango da kaos.

*Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* zaileak dira irakurtzeko, zeren eta beren idazleek orain arte euskaraz diskutitu ez diren gaiak buruz idazten dute. Ez dago hitzik; ez dago tankera onarturik — idazleek biak kreatu behar dituzte.

Nere emazteari ere bai zen *Zeruko Argia* zailea irakurtzeko lehenik; hura bizkaitarra da, euskarazko hezkuntzarik gabe. Baina astero irakurtzen ohi du, eta orain erraza da. Beste euskaldunek berdina egin behar dute; ez dago hautakizunik. Eta herri-euskara ondo ezagutzen dutenek hizkuntza idatzia aberastu egin behar dute euskaraz idatzeaz, eta beren jakintza

osoa erabiltzeaz. Oraintxe Euskara Batua eskeletoa da bakarrik; zeharo hizkuntza bizia bilakatuko da, euskaldun guztiek lagunduko badiote bakarrik.

Eta orain nere azken puntura heltzen naiz. Zuk Euskara Batuari «[el] cancer del euskera» esaten diozu — nere ustez, justifikazio barik. Baina nik ere sinisten dut, euskara minbizi batez gaixorik dagoela. Minbizi hori hau da: euskara Ian garrantzitsuetarako egokia ez delako sinistea.

Zuk zure eskutitza gaztelaniaz idatzi didazu. Zergatik? Zu euskalduna zara; ni euskalaria naiz. Zergatik idatzi didazu gaztelaniaz, Euskaltzaindiaren euskarari buruz kexatzera? Gainera, dirudienez, Lekuona, Labayen, Irigaray, eta aipatu dituzun beste euskaltzainek beren eritziak gaztelaniaz adierazi dituzte. Egiaz, bost aldiz aipatzen duzu *La Voz de Espafia*. *La Voz de ESPANA!* Uste al duzu, *Espafia* izango den euskararen salbatzailea?

Euskarari buruzko mila ta mila liburu gaztelaniaz idazteak ez du ezer egingo euskararen aide. Eta zeharo alferra da gaztelaniaz kexatzea, *Zeruko Argia-ren* euskara gustatzen ez zaitzulako. Zure eritziak jakinerazteko, bide bakarra da *euskaraz* idaztea, euskaraz. *ondo* idaztea, beste.. euskaldunei eredu bat eskaintzera.

Holakoak dira nere eritziak. Damu dut, zure eta ziiire asmo-kideen ausentziagatik; agian datorrenean elkar ikusiko dugu Euskal Herrian.

Agur eta beste bat arte,

. - • - -

• • Larry Trask

Agur Jauna:

Artu nuan, bere garaiz, zure eskutitza. Barka eidazu lenago ez erantzuna. Lanak menperatua ibilli bait naiz.

Tamalez, ez nator batera zurekin zure eskutitz orren. mian. Zillegi bezait zure idazki ori ataltxoetan zatitzea. Orrela errezagoa izango bait zait nere iritzi-emate-lana.

— 1.<sup>a</sup>: H'a erabiltzea «tradizio» bat dala diozu. Eta «tradizio» orren lekuko Laburditarrek aipatzen dituzu, eta laburditar oiek gure literaturarik «estimatuena» dala diozu. Ori, Trask Jauna, zure ustea izango da. Gure ustez, ez dira oiek gure literaturarik «estimatuena». Gafiera laburditarrek H'a bearrezkoa ba'dute, erabilli dezatela. Ez goaz gu aiei h'a kentzera. Ez bitez aiek guri H'a indarrez sartzera etorri. Eta kitto!

— 2.<sup>a</sup>: Laburditarrek H'rik ezin utzi dutela gipuzkoarrek ere J ezin utzi duten erara? Ez dezatela utzi! Guk ez diegu kenduko. Bafia guk aien H'rik ez'degu bear. Ez bezaigute H'rik sartu. Gu ez gera joango Laburdi'ra laburditarrei gure «J» ori indarrez arraztera. H'a kontuan artu gabe izkuntz idatzirik ezin egin ditekela diozu. Ez naiz uste bereko. H'a agoskatzen duten euskaldunak eundik amar ez dira. H'a agoskatzen ez degunok eundik larogeitamar baino geiago gera. Nik ez dizut nork nor menderatu bear duan esango, gu ifior menderatzera ez goaz-ta. Bafia ikaragarritzko ezberdintasun orrek ez al du zuretzat ezer esan nai? Ala ere gu ez goaz ifior menderatzera. Aiek dira gu menderatu-naiean datoztenak.

— 3.<sup>a</sup>: H'a agoskatzen dutenak baino askoz eta askoz geiago dira Euzkadi'ko sarkaldean «A» edo «E»ren aurrean «X» bat agoskatzen duten euskaldunak (Ogixa, Mendixe, Azkoitixa. Donostixa) eta «EI»ren ordez «X» agoskatzen dutenak ere (Elexa, Lexa) edo «TZ»ren ordez «TX» erabiltzen dutenak (Aretxa, Atxa...). Ala ere, naiz auek askoz eta askoz geiago izan, zen-

tzugabekeri aundia litzake «X» oiek kontuan artu gabe izkuntza idatzi bat egiterik ez dagoala esatea.

— 4.<sup>a</sup>: H'a erabiltzea oiturik daudela diozu gazteleraz edo frantzeraz eziak. Nik ez dakit auekin zer gertatzen dan, baiia bai zer gertatzen dan aiekin. Ez da egia aientzat H'a «problema» ez dala. «Problema» da, eta izugarria, Trask Jauna. Baita yakintza apur bat duan jendearentzat ere. Erriarentzat..., sekulan askatu ezin ditekean «problema» duzu ori! Ez eiguzu arren euskaldun jendeari, batere balio ez duan arazo bategaitik gaztelarrak alperrik ondutzen duten aifia denbora ondaraazi. Ez gaude ortarako, gure izkuntza il-zorian dakusgun artean!

H'a ez da ezertarako «utila» ez Euskeran ez Gazteleran ez Italiaran, ez h'rik agoskatzen ez duten beste izkuntzetan. Italiarrak izan dira gai ontan argiak. Guk ez dugu ifioiz ere itzen zentzurik nasi naiz H'rik ez erabilli. Itzegiterakoan ez ditugu nasten. («I»ontan «il» da nere Ama. «Oria» da zahi «ori». «Ura» edaten ari da bei «ura»); ez ditugu nasten naiz h'rik ez agoskatu. H'rik agoskatzeko itz oiek itzegiterakoan nasten ez ba'dira, zergaitik nastu beardute H'rik ipintzeke, lumaz idazterakoan. Egoaldean ez dugula h'rik agoskatu bear, esaten digute erafiera «el batua»-zaleek! Agoskatu ez, eta... idatzi bai? Zergatik ori? Zuk aipatzen dituzun bi bokalen arteko H oiek, parregarriak dira guretzako. Gaflera guk ez dugu bokalik bi-koiztatzen. Ori egiten ba dugu itzari indar emateko egiten dugu bakar-bakarrik («Oso zarraren» orde, ZAARRA; edo «ZAAA-RRA», oraindik zartasunari indar geiago eman nai ba'diogu).

— 5.<sup>a</sup>: Nik ateratzen ditudan ondorioak, zearo zureen aurkakoak dira: H'a euskaldun ia-danen oituraren aurka dago; Zearo alperrikakoa da. Milla aldiz zallago egiten du berez aski zalla dan gure izkuntza; Arrazoi guztiak H'ren aurka dagoz, eta arrazoirik aundiena, une auetantxe eriotz-arriskutik bizirik atera dedin Euskerak orrelako txatxukerik ez duala bear.

— 6.<sup>a</sup>: Errez diozu zuk, —eta arinegi—, Iratzeder'en eta Caro Baroja'ren aburuek, «errore» ez ba'dira erantzunik ez dutela merezi. Nik zuk bezela pentsatuko ba'nu ez nizun zuri erantzungo. Nik zure usteak «errore» dirala uste dut, bafia ez



naiz besteren abureek erantzunik merezi ez dutela esatearen aldeko.

— 7.<sup>a</sup>: «El batua»ren idazkera euskal-literaturan ematen dala diozu. Bai Jauna. Bana..., bana..., euskaldun geien-geienak, ia euskaldun danak, erabiltzen ez duten euskeran. Jarrai dezatela euskaldun apur aiek beren idazkerarekin. Ez bitez ordea, onera etorri gure idazkera aratza nastera.

— 8.<sup>a</sup>: «El batua»ren «formak» Arana Goiri'tar Sabifi'enak baifio obeak dirala, zure iritzia izanen da. Ez beintzat nereea. Neretzat, «el batua»ren «forma» oiek erderakada zarpillak besterik ez dira. Sabin linguista ez zala? Arroxamarrak zabilzate aspaldian linguistok. Gure euskerazalerik aundienak, gure idazleak, —Orixe, Lizardi, Lekuona, Lauaxeta, Kerexeta, eta zure idazle zar aiek: Mendiburu, Kardaberaz, Larramendi, Axular...—, eta gure elizetako izlari bikafiak eta gure bertsolariak, euskera bizirik gorde diguten euskal-langille eraspengarriak ez dira «izkuntzalari» izan; erriko jende xee apala baizik. Utzi eiguzute pakean erriko jendeei gure erriko izkuntzarekin. Guk aterako degu bizirik euskera, ez zuek! Erabili ezazute zuek Euskera zuen azteketen gaitzat eta idatzi itzezute doktore-tesi mardulak. Baiia Euskera bizirik ateratzen utzi guri pakean! Izango degu lanik aski-ta!

Sabin zuk uste baifio gizon aundiagoa izan zan. Izan zituan akatsak. Garbikeri-zalekerian aurreraegi joan zan. Bana, ots! Arek asmatutako itz asko, (gotzai, abesti, aberri, ikurrifi, lendakari...), erriko izkuntzan sartu dira. «El batua»ren mordolokeriek ez dute ori sekulan lortuko. Arana'k asmatutako «aberi» ren aide ibilli ginan millaka gazte borrokan, eta ibilli gera gero erbestean eta espetxeetan, Arana'k asmatutako «ikurrin» aren babespean. «Gera» diot. Tarteko izan bait naiz ni neroni borrokazko ibilliera ortan.

— 9.<sup>a</sup>: Errusiarrentzat, eta zuentzat ere Inghlanderrian, idazkera morfologikoa ohea dala diozu. Bejondeizuelal Nik errusiarren idazkera aipatu ba'nuan ere, soilki errusiarrek beren idazkera erreztu egin dutela adieraztearren aipatu nuan. Euskaltzaindia, alderantziz, gurea zaildu naiean bait dabil itsu-itsuan. Guk «N» eta «LL» bearrekoak dirala uste dugu, eta ez dugu gauzak okerragotzerik nai. Errriak beti, Ofiate eta Mar-

kina eta Qifiaz- esan du, eta ez Oinate eta Markina edo Oinaz. Izki oiek onarturik zeuzkaten ia euskaldun guztiek, —moraliter omnes!—. Nor da emen pakea zegoan tokian gudua sortaraztea etorri dana?

— 10: Taturkitarrek agoskatzen ez dituzten izkiak bearrezkoak ba'dituzte, erabili dezazkete lasai guregaitik. Ez gera turkitarren artean borrokarik sortzera joango.. Ez bitez etorri guregana «el batua»zaleak!

— 11: «Caos linguistico», esan.zuan Labayen'ek, «el batua»k sortuko zigula. Zuri ori ez dala arrazoi bat, iduritzen zaizu. Nik geiago esango dizut: «Caos Unguistico» ori sortu duala «el batua»k. Ori arrazoi bat ez dala? Ez jauna. Arrazoi bat baino geiago bai da: gertakari bat. Eta «contra facta non valent argumenta», (sendagilleok ere, naiz izkuntzalari izan ez, latera pixka bat bai bait dakigu, naiz latera ori, bai orixe, oso latera merkea izan).

••— 12: Euskeraren bateratzea astiro egiterik ez daukagula diozu, euskera gizaldi batean ilko zaigulako. Ortik gure bildurra!!!! Bateratze ori iraztean eta indarkeriz egin nai izatea, euskera erabat iltzeko biderik egokiena izango bait litzake. Euskera orrelako eriotz-arriskuan dagoanean euskaldunei dakiten Euskera ori aztuta beste Euskera bat, —nardagarri zaien Euskera bat—, indarrean arreraztea, zentzu oneko gizonei bururatu zetzaikeen gauza al da? Itzegiten dan Euskera bizirik gordetzea da gaur gure eginkizun bakarra, Jaun Trask, eta ez euskera izkuntzalari eta sasi-izkuntzalarien jostaillu biurtzea.

«Gai eta maila guztientzako ikaskintzarako», Euskera batu bat BEARREZKOA dala? Ez jauna. «El batua»k airia balio dute Gipuzkerak edo Bizkaierak edozein irakaskintzarako. Ez genduke besterik falta...! Teknikako itzik ez dutela? To! Ezta Euskera Batuak ere. Itz oiek ez dira euskerarenak; ez gaztelararenak, ez ifiungo izkuntzarenak. Itz oiek teknika orokorrenak dira: mundu guztiarenak.

A! Benetan iruditzen zaizu zuri UZEI'k eta Elhuyar'ek «lan bikaina» egin dutela? Ondo aburu ezberdinezkoak gera giza-kumeok benetan, munduan!

.— 13: Euskaltzaindiaren erabakiak «arbitrarioak» izan bear

dutela diozu. Ez jauna. Euskeraren nagusi eta jabe, —«arbitroa»—, ez bait da Euskaltzaindia, Euskal-Erria baizik. Ezta're, guk ez dugu uste Euskaltzaindiaren erabakirik «geianak onak» izan diranik euskeraren bateratze-arazoan. .... - -

Euskaltzaindia ez dala «gamelu» diozu Inghlanderriko zuen esaera bat aipatuaz. *Pozik* gifiake gu, Trask Jauna, Euskaltzaindia «gamelu» ba'litz. «Gamelu» ez baifia otsoa bait da Euskaltzaindia Euskerarentzat. -

A!; ta bai al dakizu azkeneko egun auetan bi euskaltzain il diran arte, Euskaltzaindian Aunamendiz onuntzuko euskaltzai fietan geienak «el batua»ren etsai zirala? Amar aurka, zazpi bakarrik aide! Ta bai al dakizu orrek zer esan nai duan? Eundik *larogetamar-eta-g.eiago* euskaldunen ordezkariak «el batua»ren aurkakoak zirala! Nungo eskubiderek agertu zitzaizkigun Aunamendiz aruntzko euskaltzai fiak, —*eundik* amar euskaldunen ordezkari izatera iristen ez diran euskaltzain oiek—, guri, Eundik Larogetamarrer beren H'ak eta *prantzeskeriak* eta gaskoinkeriak indarrez arreraztera.

Orain Euskaltzamdiak, —nola ez?—, ildako bi euskerazain aien tokian bi «el batua»zale sartu ditu. Orain, zortzi dira emengo euskaltzainetan «el batua»ren aurka eta zortzi aide. Laister, danak izango dira aide, euskaltzamdiak ipartarrek ematen dien geiengoarekin «el batua»zale utsak aukeratuko bait ditu bere altzorako. Bafia, ori joku garbia al da?

— 14: Euskaltzaindiaren idazkera «ikusi dituzun idazkeretan onena» dala diozui Bapo! Ba-duzu zure iritzia izateko esku bidea. Eta Santa Luzia'k gorde dezaizula ikusmena!

— 15: «Bakoitzak bere euskalkian idazten» ba'du, «erresultatea» ez da benetan-<<kaos bat» izango. Ez da orain artean izan. Eta «contra facta»...! Emen, «kaos» ori, «el batua»k sortu du!!!

— 16: «Zeruko Argia»k eta «Anaitasuna»k erabiltzen dituzten gaiak guk ere erabiltzen ditugu eta gure idazkiak ez dira aienak bezela ulerkaitzak. Eskutan daukat iparraldeko euskaltzain baten eskutitza. «Goiz Argi» «Zeruko Argia» baino atsegiiiagb irakurtzen duala dio, eta errezago ulertzen. Zure andreak «Zeruko Argia» errez ulertzen duala? Zorionekoa zera

zu; adimen zorrotzeko andrea bait da benetan zure andrea. Ez da illabete, Lekuona'tar Imanol'ek esan zigula berak «el batua»rik ez duala ulertzen. Orixe bera esan zigun orain bi urte Artzalluz'ek Bizkai'ko parlamentari jeltzaleen aurrean eta ori bera esan zuan sortu bertan Zubiri'tar Xabin «Deia»ko Administraketa-Batzordearen lendakariak. Ta orixe bera esan digu orain amabost egun Labayen Kulturako Kontseillariak. Lekuona'k, «Deia»ren idazlan bat eman zigun eskura, onako auxe esanaz: «Ea bi irakurraldi utsetan idazlan au ulertzen duzuten»...!

— 17: Trask Jauna: Nik ondo dakit ez dala Espafii izango Euskeraren salbatzallea. Zuk baino burruka geiago egin dut nik Espaii'ren aurka, eta orregaitik zuk baino askoz arrisku geiagotan eta aundiagotan ikusi dut nere burua. Bafia baita're badakit Euskeraren salbatzalleak ez dirala «el batua» 1960'garren urtearen inguruan sortu zuten ETA'tarrak izango. Gauzak bere punttuan. Ni ez naiz Espafii-zale. Oso-osoan abertzale nauzu. Bafia ez diot Espafii'ri gorrotorik. Eta «el batua» Espafii'renganako gorrotoak sortarazitako landarea da. «La unification sin la H seria la unification a la espafiola. jY eso no!», oles egin zuan Euskaltzaindiaren Bergara'ko Biltzarrean... —ba-dakizu nork?—, Txillardegik!, «el batua»ren sortzalleak!

Ta aizu! Lekuona'ri, Labayen'eri eta Irigaray'eri zuk ez diezu Euskeraz idazten erakutsiko. Aiek erderaz idatzi ba'zitu-tuzten nik aipatutako itzak, gure euskeraren etorkizuna euskeraz ez dakitenean eskuetan dagoalako izan zan. Eta nik aiek erderaz idatzi dituzten esakizunak bakarrik aipatu ba'ditut, Leioa'n izan zifiaten euskalzale atzerritar guztiak zuk bezain ondo euskeraz itzegiteko gauza ez zirala banekialako izan da.

Guk Trask Jauna Euskera Bat ba-genduan a'spalditik Azkue'ren Gipuzkera Osoa. Euskaldun danak ontzat arturik zeukatena. Azkue eta Kanpio'n eta Arana Goiri marxizaleak izan ba'lira, zaude ziur, Trask Jauna, emen ez genduan gaur «El batua»rik izango.

Euskera bizirik gordetzeko auxe bear dugu: Bizkaitarrek bizkaiera eta gipuzkoarrek gipuzkoera ikastoletan ondo ikastea. Besterik gabe egina dago Euskeraren batasuna, gipuzkoarrok bizkaitarrei eta bizkaitarrek gipuzkoarroi alkarri ederki uler-

tzen bait diogu. Ulerkera ori errezago egitearren aixa erakutsi lezaieke Bizkai'ko umei gipuzkoeraren aditza eta Gipuzkoa'koei bizkaierarena ikastolako azkeneko urtean. Araba'n eta Napparoa'ko Erriberan zer erakutsi? Euskaldun guztiak errezen ulertzen duten Euskera: Gipuzkera Osotua.


Agur Trask Jauna. Gaizki esanak barkatu.

Zure esanera...

*Dionisio de Onatibia*

# MODERNICESE

*yt^surtBlii:*



CAMBIAMOS su vieja maquina de cualquier marca por una moderna "ALFAMATIC" llena de posibilidades.

LA DIFERENCIA DE PRECIO EN 0, 11, 18 ó 24 MESES  
Tambien transformamos la de pies de hierro en PORTATIL ELECTRICA, que practicamente no ocupa sitio.

# ALFA